

BESTELAKO XEDAPENAK

OGASUN ETA FINANTZA SAILA

575

AGINDUA, 2015eko otsailaren 2koa, Ogasun eta Finantzetako sailburuarena, enpresa txiki eta ertainei, enpresaburu indibidualei eta profesional autonomoei finantza-laguntza emateko programaren lehen deialdia argitara emateko dena. Programa hori urtarrilaren 20ko 4/2015 Dekretuak arautzen du.

Urtarrilaren 20ko 4/2015 Dekretuak, enpresa txiki eta ertainei, enpresaburu indibidualei eta profesional autonomoei finantza-laguntza emateko 2015erako programa garatzen duenak, aipatutako kolektiboek laguntzeko finantzaketa-lerro bat irekitzen du, gehienez 600 milioi eurokoa, horien kapital zirkulatuaren beharrei erantzuteko.

Kreditua lortzeko baldintzak, erakunde onuradunak, baliabideen erabilgarritasuna eta maileguen baldintzak arautzen ditu dekretu horrek, baita elkarren bermerako sozietateetan eta finantza-erakunde laguntzaileetan egin beharreko izapideen prozedurak ere. Horretarako, Ogasun eta Finantza Sailak beharrezkoak diren lankidetzak hitzarmenak sinatu ditu programari atxikita dauden elkarren bermerako sozietateekin eta finantza-erakundeekin.

Aipatutako dekretuaren 7. artikuluan ezarritakoaren arabera, finantzaketa-lerroaren lehenengo deialdia egin behar da, beharrezko arauak emanez. Hori dela-eta, hauxe

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Helburua.

Urtarrilaren 20ko 4/2015 Dekretuan xedatutako finantzaketa-lerroaren lehen deialdia egitea da agindu honen helburua. Dekretu horren bidez, enpresa txiki eta ertainei, enpresaburu indibidualei eta profesional autonomoei finantza-laguntza emateko programa garatzen da 2015erako.

Finantza-erakunde laguntzaileek honako mailegu-kopuru hau emango dute: 280 milioi euro enpresa txiki eta ertainentzat, eta 20 milioi euro enpresaburu indibidual eta profesional autonomoentzat, betiere hurrengo deialdietan zenbateko hori handitzeko aukera alde batera utzi gabe.

Hala ere, Ogasun eta Finantza Sailak zenbatekoak berresleitu ahal izango ditu, dekretu hone-tan azaltzen diren kolektiboetakoren batean finantzaketa-eskaria nahikoa izan ez den kasuetan.

I. eranskinean, elkarren bermerako sozietate laguntzaileen eta horien sukurtsalen zerrenda dago jasota. II. eranskinean, berriz, finantza-erakunde laguntzaileen zerrenda.

2. artikulua.– Eskabideak.

1.– Eskabideak eta gainerako agiriak elkarren bermerako sozietate laguntzaileen sukurtsaletan aurkeztu behar dira. Bulego horien zerrenda I. eranskinean dago.

2.– Eskabidearen eredia eta inprimakiak agindu honetako I. eranskinean zehazten diren sukurtsaletan eskuratu ahal izango dira, edo, bestela, Interneteko www.euskadi.eus helbidean.

3.– Agindu honen lehenengo artikuluan ezarritako mailegu-kopurua agortu arteko laguntza emango zaie finantza-laguntza emateko programan sartzeko eskaerei, edo artikuluko horretan bertan aurreikusitako gehikuntzaren ondorioz ezarritakoa agortu artekoa. Elkarren bermerako sozietate

2015eko otsailaren 6a, ostirala

laguntzaileetan sarrera ematen zaien hurrenkeraren arabera sartuko dira eskaerak programan. Mailegu- eta kreditu-kopurua agortzen denean, Ogasuneko eta Finantza Politikako sailburuordearen ebazpen baten bidez emango da horren berri; ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

AZKEN XEDAPENA

Deialdia egiteko agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko otsailaren 2a.

Ogasun eta Finantzetako sailburua,
RICARDO GATZAGAETXEBARRIA BASTIDA.

I. ERANSKINA

ELKARREN BERMERAKO SOZIJETATE LAGUNTZAILEAK

ELKARGI, S.G.R. www.elkargi.es

Egoitza nagusia:

Mikeletegi pasealekua 50.

20009 Donostia

Telefono-zenbakia: 943 30 90 60

Helbide elektronikoa: elkargi@elkargi.es

Arabako Eskualde Zuzendaritza:

Posta kalea 24, 1.

01001 Vitoria-Gasteiz

Telefono-zenbakia: 945 23 12 12

Helbide elektronikoa: earaba@elkargi.es

Bizkaiko Eskualde Zuzendaritza:

Plaza Biribila 4, 2.

48001 Bilbao

Telefono-zenbakia: 94 423 82 28

Helbide elektronikoa: ebizkaia@elkargi.es

Gipuzkoako Eskualde Zuzendaritza:

Mikeletegi pasealekua 50.

20009 Donostia

Telefono-zenbakia: 943 30 91 77

Helbide elektronikoa: egipuzkoa@elkargi.es

OINARRI, Sociedad de Garantía para la Economía Social, S.G.R. www.oinarri.es

Egoitza nagusia:

Arabako Teknologi Parkea.

E-3 eraikina, 2. solairua

Miñao. 01510 Vitoria-Gasteiz

Telefono-zenbakia: 945 29 82 80

Helbide elektronikoa: araba@oinarri.es

Bizkaiko ordezkari-tza:

Granada eraikina.

Kale Nagusia 38, 8. esk.

48001 Bilbao

Telefono-zenbakia: 94 424 87 08

Helbide elektronikoa: bizkaia@oinarri.es

Gipuzkoako ordezkari-tza:

Idiakez kalea 13, 1., 6. bulegoa

20004 Donostia

Telefono-zenbakia: 943 44 06 66

Helbide elektronikoa: gipuzkoa@oinarri.es

II. ERANSKINA

FINANTZA-ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK

Bankuak:

- Kutxabank, S.A.
- Caixabank, S.A.
- Banco Bilbao Vizcaya Argentaria, S.A.
- Banco Santander, S.A.
- Bankinter, S.A.
- Banco Popular Español, S.A.
- Banco de Sabadell, S.A.
- Bankoa, S.A.
- Targobank, S.A.
- Banco Popolare Etica, S.C.P.A., sucursal en España

Kreditu-kooperatibak:

- Caja Laboral Popular, C.C.
- Caja Rural de Navarra, S.C.C.